



GARAPENERAKO LANKIDETZA KONTSEILUAREN BILERA

Tokia eta eguna: Leioan, 2011ko urtarrilaren 10ean

Hasiera-ordua: 12:00etan

Amaiera-ordua: 13:10ean

Presidentea:

Iratxe Amiano andrea (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria)

Idazkaria:

Estibaliz Martínez andrea (Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko teknikaria)

Bertaratu direnak:

Kontseilukideak

Luis Guridi jauna

Eneko Calle jauna

Imanol Zubero jauna

Joseba Sainz de Murrieta Mangado jauna

Ez bertaratuak:

Amaia Maseda andrea

Anaut Patterson Mendiola jauna

Maria José Mijangos andrea

Koldo Unceta Satrústegi jauna

Joseba Zuazo Olozaga jauna

Jose Aurelio Pérez Arias jauna

María José Maeztu andrea

Gai-zerrenda:

1. Aurreko aktak onestea
2. Garapenerako Unibertsitateen Lankidetzaren jardunaldiaren inguruko aurrerapenak.
3. Galderak eta eskaerak.

Akta

Iratxe Amiano andreak (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria) hasiera eman dio bilerari. Bileraren hasieran, Iratxe Amiano andreak (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria) bilerara etortzea eskertu die bertaratuei, eta gai-zerrenda aurkeztu du.



Lehen aztergaia: Aurreko aktak onestea

Kontseiluak 2010eko azaroaren 22an eta 2010eko abenduaren 13an egin zituen bilerei buruzko aktak onartu dira.

Lankidetzaren Kontseiluaren webgunean, martxan jartzen denean, aktak argitaratzea erabaki da.

Bigarren aztergaia: Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren Jardunaldiaren inguruko aurrerapenak.

Honako hau erabaki da puntu horren inguruan:

- 0 Diagnostikoa amaituta dago, eta aste honetan Lankidetzaren Kontseiluko kideei bidaliko zaie posta elektronikoz.
- Lan-saioa otsailaren 11n (ostirala) 9:00etatik 14:00etara egingo da Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Gradu Aretoan (Sarriko, Bilbon). Fakultate horretako Ekitaldi Aretoa ere erreserbatuko da, parte-hartzaile ugari etorriz gero, leku-arazoak ez izateko.
- Jardunaldiaren egitaraua aktari atxikita dago, 1. eranskinean.
- Unibertsitate Hedakuntza eta Gizarte Erantzukizuneko Errektoreordetzaren web-orrian argitaratuko da Interneten bidez Jardunaldian izena emateko fitxa bat. Horrela, gutxi gorabehera zenbat pertsona etorriko diren jakingo dugu.
- Azken urteotan UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzarako jardueretan parte hartu duten irakasle, ikasle, administrazio- eta zerbitzu-langile eta elkarte guztiei Jardunaldirako gonbidapen pertsonalizatua bidaltzea. Hori egiteko, Lankidetzaren Bulegoan hasi dira informazioa biltzen.
- Gonbidapen pertsonalizatuari erantsiko zaizkio egitaraua eta etortzekoa den ala ez jakinarazteko eskaera; horretarako, Interneten bidez izena emateko fitxaren lotura emango zaie.

Bosgarren aztergaia: Galderak eta eskaerak.

Ez dago iruzkinik.

Beste aztergairik ez dagoenez, bilera amaitu da.



BEHIN-BEHINEKO PROGRAMA

9:00 Ongi etorria eta helburuen aurkezpena.

- **Amaia Maseda** (Unibertsitate Hedakuntza eta Gizarte Erantzukizuneko errektoreordea).
- **Marta Ares**, Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako zuzendaria
- **Iratxe Amiano andrea** (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria).

9:30 Garapenerako lankidetzaren egoera UPV/EHU. 0 Diagnostikoa.

Luis Guridi (Hegoa Institutuko zuzendaria)

9:45 Garapenerako lankidetzaren Estatuko unibertsitateetan.

Jaime Cervera (OCUDko zuzendaria)

10:30 Atsedenaldea eta kafea.

11:00 Mahai-ingurua: unibertsitatearen egitekoa garapenerako lankidetzan.

- **Moderatzailea: Iratxe Amiano andrea** (UPV/EHUko Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria).
- **Maria Jose Maeztu** (AZL)
- **Koldo Unceta** (Irakasle eta ikertzaileen taldekoa)
- **Eneko Calle** (ikaslea)
- **Bionatur** (elkartea)
- **Jaime Cervera** (OCUDko zuzendaria)

13:45 Lan-tailerren eraketa eta egutegia.

A tailerra: Erakundearen konpromisoa eta ikastegiaren eta Campusen barneko kudeaketa.

B tailerra: Irakaskuntza eta ikerkuntza.

C tailerra: Boluntarioritza, zabalkuntza, sentsibilizazioa eta presentzia jendeartean.

14:00 Jardunaldien amaiera eta bazkaria (pintxoak).